Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Markel Arriolabengoa Martiarena*

*Arrasate, Gipuzkoa (1990)*



Aurkibidea

## Biografia



Aramaioko da, baina Zuian bizi da. Aita Aramaiokoa du eta ama Arrasatekoa. Kaletarra den arren, harreman handia du baserriarekin eta basoarekin, besteak beste lanarengatik. Hikari buruzko elkarrizketa egin genion, Arrasaten, Ibai Zubizarreta lagunarekin batera (horregatik agertzen da Arrasateko orrian eta ez Aramaion). Aitak batzuetan hika egiten dio; 12 urte zituenean, hari hika egiten hasi zen. Baserri giroko gizonezkoekin egiten du hika batez ere.

## Zintak

### ARR-203

- **Proiektua**: Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2024-06-11
- **Iraupena**: 91 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

## Pasarteak

### 1. Nola ikasi duen hika

- **Erref**: ARR-203/002
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:04:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Aitak hika egin izan dio batzuetan. Arrebak badaki baina ez du egiten. Entzun egin izan du eta lagun zehatz batzuekin egiten du hika. Noka egiteak lotsa ematen dio, ez duelako erabili izan.

### 2. Aramaioko eta Arrasateko hika

- **Erref**: ARR-203/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:04:52. **Bukatu**: 00:06:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Baserritarrengandik jaso du hika. Aurreko belaunaldiekin lotuta dagoela uste du. Aramaioko auzoetako hitanoak zelakoak diren azaltzen du.

## 3. Hika egiten hasi, laga, berriro ekin...

- **Erref**: ARR-203/004
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:06:52. **Bukatu**: 00:09:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Hika egiten nola hasi zen: norekin egin ez zeukanez, aitari egiten hasi zen baina gero zukara pasatu zen. Barne-gatazka bizi izan zuen hitanoak generoa markatzen duelako, eta urte batzuez hika egiteari laga zion. Azken urteetan berriz ekin dio.

## 4. Hitanoaren balioa

- **Erref**: ARR-203/006
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:09:38. **Bukatu**: 00:11:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Hika ondare kultural aberatsa eta komunikatzeko era desberdina direla uste du. Goxotasuna sortzen duela dio. Ikasteak ere erakarri izan du.

## 5. Hika noiz eta norekin

- **Erref**: ARR-203/007
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:11:39. **Bukatu**: 00:14:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Noka zeinekin egin dezakeen ez dauka argi. Hika noiz eta non egin erabaki izan du; biren arteko kontua dela dio.

## 6. Hika zeinekin egiten duen

- **Erref**: ARR-203/008
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:14:27. **Bukatu**: 00:17:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Hika zeinekin egiten duen azaltzen du; banaka batzuk eta lanarengatik harremana duen baserritarrekin. Aramaion hika zeinek egiten duen azaltzen du. Orokorrean emakume gutxi entzuten ditu hika.

## 7. Hitanoa gazteagoek zergatik ez duten erabiltzen

- **Erref**: ARR-203/009
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:17:17. **Bukatu**: 00:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Hitanoa adin-tarte batetik behera zergatik ez den erabiltzen azaltzen du, bere sentsazioetatik.

## 8. Hika egiteak zer sentiarazten dion

- **Erref**: ARR-203/011
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:20:54. **Bukatu**: 00:22:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Hika aritzeak ez dio erosotasunik ematen, kosta egiten zaiolako. Poza ematen dio egiteak, hala ere. Hainbatekin aritzean gertutasuna eta gardentasuna sentitzen du.

## 9. Hitzartu gabe hasi ziren hika elkarrekin

- **Erref**: ARR-203/017
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:34:48. **Bukatu**: 00:37:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Basoarekiko eta naturarekiko zaletasunak batu ditu. Batzuetan hika egiten dute eta beste batzuetan ez. Hitanoa galtzeak pena ematen dio Ibairi eta bere ekarpena egin nahi du.

## 10. Euskalkiari garrantzia ematen diot

- **Erref**: ARR-203/024
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:47:44. **Bukatu**: 00:51:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Markelek euskalkiari garrantzia handia eman izan dio. Gipuzkeraz egitea eleganteagoa dela pentsatu izan da. Adin batera helduta, batzuk sustraietara bueltatzen direla ikusten du. Sei lagun bizi dira baserrian eta euskalki asko erabiltzen dituzte; horietako batekin hika egiten du baina batuan.

## 11. Hika aritzean zaurgarri sentitzea

- **Erref**: ARR-203/026
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:53:43. **Bukatu**: 00:56:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Hitanoa zela zabaldu aipatzen dute. Zaurgarri sentitzen da Markel hika aritzen denean, hesi horiek apurtzen baduela lana dio.

## 12. Memorian, gauzak kontatzeko eran... eragin du mugikorrak

- **Erref**: ARR-203/028
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:57:00. **Bukatu**: 00:59:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

**Laburpena**:
Mugikor gabeko garaietaz ari dira. Arrebak mugikorra eskatu zuelako aita asko haserretu zenekoa kontatzen du Markelek. Memorian nola eragin duen aipatzen du Ibaik. Gauzak kontatzerakoan ere mugikorra erabiltzen dela dio Markelek.

## 13. Mugikorraren erabilera neurtzeaz

- **Erref**: ARR-203/029
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:59:35. **Bukatu**: 01:02:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

**Laburpena**:
Mugikorrak eragiten dion antsietateaz ari da Markel. Ibaik kontatzen du lanean izandako gorabehera batek nola arautu duen mugikorraren erabilera.

## 14. Gustuko musika

- **Erref**: ARR-203/032

- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 01:07:29. **Bukatu**: 01:10:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena**:
Euskal musika aparteko genero bat bezala hartzeak harritu egiten du Ibai. Musika berritzailea eta tradizionala, biak gustoko ditu Markelek.

## 15. Euskararen egoera Aramaixon; taberna giroa erdaldunagoa

- **Erref**: ARR-203/035
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 01:17:55. **Bukatu**: 01:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Aramaion euskararen egoera antzera dagoela iruditzen zaio Markeli. Adinaren arabera, hizkuntza aldaketak ematen direla kontatzen du. Institutuan burlak jasotzen zituzten aramaioarrak izatearren, baserritartzat eta gutxiagotzat hartzen zituztelako.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-05-01*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com